

«Indartsuak ezustean hartu nahi ditugu»

Bera-Bera emakumezkoen eskubaloia taldea sailkapeneko goi postuetan dugu eta Espainiako Ligako talde indartsuenekin ariko da datozen asteotan. Asteburu honetan, Eida taldeari egingo dio bisita eta hurrengoan, Bidebietan, Ferrobusek talde valentziarra hartuko du. Partida hauetaz eta taldean izandako aldaketez mintzatu gara taldeko presidente Jose Angel Rodriguezekin.

Igor Usabiaga

Eida eta Ferrobusek dira Bera-Beraren hurrengo arerioak. Talde indartsuei aurre egiteko ordua iritsi da...

Bai, hala da. Urtero bezala, bai Eldak eta baita Ferrobusek ere egundoko taldeak osatu dituzte, baina, gure taldea gogotsu aterako da kantxara, punturen bat urratzeko asmoz. Duela bi urte, bi talde horiek gaingitu genituen. Hortaz, norgehiagoka zailak diren arren, ez dugu zertan beldurtu. Talde indartsuak ezustean hartu nahi ditugu.

Denboraldi honetan, Reyes Karrereri kontratua ez berritzea eta Jose Luis Villanueva entrenatzaile berria ekartzea erabaki zenuten. Zergatik?

Ez dugu entrenatzailea aldatu Reyes Karrerrek helburuak lortzen ez zituelako edo ondo lan egiten ez zuelako. Reyes hiru urtez aritu zen taldean, eta bere zikloa bukatuta zegoela uste genuen. Izan ere, taldeko jokalariek eta joko oso ezagunak ziren, eta aurten hainbat txapelketatan parte hartu behar dugunez, ez genuen jokalaririk eta joko berdinarekin menpe egon nahi. Txapelketak eta egiturak aldatu dira, eta jokalariek gazteekin lan gehiago egin

nahi dugu. Oraingo entrenatzaileak 20 urteko eskarmentua du eta eskubaloia oso ondo ezagutzen du. Bere ezaugarriak taldearentzat oso aproposak direla uste dugu.

Zer ekarri diote Bera-Berari fitxaketek?

Gure atean erregulartasuna bilatzen genuen. Cruz Robles atezainarekin erregulartasun hori lortzea espero dugu. Horrez gain, esperientzia handiko jokalaria da, eta Ainara Rodriguez atezain gazteak beregandik asko ikasteko aukera izango du. Jaurtitzailerik ezker bat ere behar genuen. Estatuan oso jokalaririk gutxi dute ezaugarri hori eta oso garestiak dira. Horregatik, nazioarteko txapelketetan esperientzia handia duen Andryuchenko fitxatu genuen. Dena dela, Andryuchenkok, orain arte jokatuak partidetan, ez du

eman dezakeen guztia eman, osasun arazoak izan ditu eta.


Jokalariek gazteak ere hor daude...

Bai, jokalariek gazte asko ditugu: Nely Carla, Matxalen Ziarsolo, Ainara Rodriguez edo Esther Larreategi, esaterako. Jokalariek gazte hauek esperientzia hartzen eta beraien maila erakusten hasi behar dute. Gazteen eta beteranoen arteko oreka lortu behar dugu, beteranoei beraien esperientzia erakutsi eta gazteek esperientzia hori har dezaten. Era berean, aulkian ordezkoak izan behar ditugu.

«Lan gehiago egin nahi dugu gazteekin»

Unanue eta Titin aurrez aurre

Mikel Unanue arogoatarrak igandean hilak 10. lehen partida jokatu du lan lehiakotako txapelketan Titin-en kontra. Aurrelari erioaxarra sasoiak dago, izan ere, Enrike Galarza 22-8 irabazi zion aurkezteko asteburuan. Partida irabazten duenak Lasa III izango du areto hurrengo kanporaketan.



Urreiztiren Gijon Baloncesto goiko postuetan

Iker Urreiztiren donostiarren denboraldi polita egiten ari da LEB leian. Gijon Baloncesto taldearekin taldea sailkapeneko laugarren lekian dago eta jokatuako azken partidatik berriak irabazi ditu. Ikerrek zati-puntu lortu zituen.

